

Euskararen garapena lehen hizkuntza legez eta morfologiaren agerrera mailakatuaren inguruan

Andoni Barreña
Salamancako
Unibertsitatea

Iñaki Garcia
Nekane Arratibel
Mondragon
Unibertsitatea

M. Jose Eizabarrena
Margareta Almgren
Euskal Herriko
Unibertsitatea

Alazne Petuya
Amaia Colina
Seaska

Ikerlan honetan 16tik 30 hilabetera bitarteko 975 haur euskaldunen hizkuntza-ekoizpena aztertzen da, lexikoaren eta morfologiaren garapenari zehatz begiraturik. Ikertzaileek hiru hipotesi nagusi jorratzen dituzte, honako ondorio nagusietara iritsiz: morfologia-elementuak mailakatuta agertzen dira, morfologia-elementuak gauzatu ahal izateko haurrek aurretik masa lexiko jakin batez jabetu behar dute, eta lehenago haur gutxiren ekoizpenean oinarrituta egindako ikerketa longitudinaletan aurkitutako morfologia-elementuen hurrenkera bera gertatzen da oraingo honetan ere.

In this investigation the language production of 975 Basque-speaking children is analysed, with special regard to the development of the lexicon and morphology. The investigators examine three main hypotheses, arriving at the following conclusions: The morphological elements appear gradually, conditioned by the acquisition of a determined mass of vocabulary. The order of appearance of morphology previously found in longitudinal studies is confirmed on this occasion.

1. Sarrera¹

Psikolinguistikaren arloan gauza jakina da haurrak hitz egiten hasten direnean hitzak banan-banan erabiltzen dituztela aldi batean. Geroago, handik hilabete batzuetara, esaldi berean hitzak lotzen hasiko dira, hitz biko ekoizpenak egiten, eta laster morfologia ere erabiltzeari ekingo diote. Antzeko garapena ikusi izan da hainbat hizkuntzatan.

Fenomenoa orokortu nahian, erreferentzia legez, haurren lehen hitzak urtebete inguru dutenean ekoizten dituztela esan dezakegu, hitz biko ekoizpenak hamazortzi hilabete dituztenean erabiltzen hasten direla, eta morfologiaren lehen ezaugarrien erabilera urte bi izan aurretik lortzen dutela. Lexikoa, beraz, sintaxia edo morfologia baino lehenago erabiltzen dute haurrek.

Euskaraz ere antzeko garapena gauzatzen dutela ikusi da euskararen garapena aztertzeko haur gutxiren datuetan oinarrituta egin diren ikerketan (Barreña, 1995; Ezeizabarrena, 1996; Zubiri, 1997; Elozegi, 1998).

Oro har, bada, hatsarre bat ondoriozta daiteke horretatik: lexikoaren eta gramatikaren agerreraren artean asinkronia gertatzen da. Horrez gain, bada jarraipen longitudinala egin zaien haurren hizkuntzaren garapenaren ikerketatik ondorioztatu den beste hatsarre bat ere: gramatikaren garapena bera ez da bat-batean gertatzen, era mailakatuan baino. Morfologia-marka batzuk beste batzuk baino lehenago agertzen dira, alegia.

Lexikoaren garapenaren eta gramatikaren garapenaren arteko erlazioaz ere eztabaidatzen hasi da jakintzaren arlo honetan, eta asko dira gramatika erabiltzen hasi baino lehen haurrak hitz kopuru minimo bat beharrezkoa duela aldarrikatzen duten ikertzaileak. Hau da, haurrak masa lexiko kritiko bat menderatu behar duela sintaxia edo elementu morfologikoak erabiltzen hasi aurretik. Horrela ikertu eta aurkitu dute, esaterako, ingelesaren garapenean (Marchman eta Bates, 1994; Bates eta beste, 1994), italiararen garapenean (Caselli, Casadio eta Bates, 1997; Devescovi eta beste, 2005), frantsesarenean (Bassano, 2000), galizierarenean (Pérez-Pereira eta García-Soto, 2003), katalanarenean (Serrat eta beste, 2004) edo euskararenean (Barreña eta beste, 2006 eta Barreña eta beste, agertzeko).

Gramatikaren garapena aztertzean nabaria izan da haurrak elementu edo ezaugarri morfologiko batzuk beste batzuk baino goizago darabiltzala ikustea, eta arakatu diren haur gutxiren ekoizpenetan ezaugarri morfologiko antzekoak agertu izan dira goizago edo beranduago.

Euskararen garapenean hitz biko ekoizpenak egiteko, haurrak gutxienez 51-100 hitzeko masa lexikoa behar duela ikusi da (Barreña eta beste, agertzeko). Morfologiaren agerrera baiesteko masa lexiko kritikoaren beharra ere zenbatu da: izen-sintagmei eransten zaizkien marka morfologikoetarako 101 hitzetatik gorakoa, eta aditzei eransten zaizkienetarako 301 hitz baino handiagoa.

1. Eskerrak adierazi nahi dizkiegu ikerketa honetan lagundu diguten guztiei, hala nola, datu-bilketan parte hartu duten haur-eskola eta guraso guztiei, haurrei, babesaz eta diruz hornitu gaituzten Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailei (PI2000-5 eta PI2004-16), MECari (HUM2006-11862-C03-02/FILO) eta KGNZ taldeko ikertzaile guztiei.

Euskararen gramatikaren garapena arakatzean ezaugarri morfologikoen agerrera mailakatua gertatzen dela ere baietsi da (Barreña eta beste, 2006), lehenago zenbait haurren jarraipena aztertzean ikusi izan zen bezalaxe (Larrañaga, 1994; Barreña, 1995; Ezeizabarrena, 1996; Zubiri, 1997; Elozegi, 1998; Almgren, 2000).

Haur euskaldun gutxiren jarraipen longitudinaleko datuetan oinarrituta lehenago ikusi zen legez, bada haur guztiek gordetzen duten morfologiaren agerrera-hurrenkera zehatza, gutxi gorabeherakoa, honela laburbil daitekeena:

– Izen-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken artean NON eta NORA postposizio-markak eta NOR, NORK, NORI eta NOREN kasu-markak² dira haurrek erabiltzen dituzten lehenetakoak; ondoren, beste zenbait postposizio-marka darabiltzate, hala, nola, NORENTZAT, NOREKIN eta NONDIK postposizioei dagozkienak, eta geroago beste zenbait, NONGO, ZERTAZ, NORAINO eta NORANTZ postposizioenak; pluralari dagokion *-k* marka ez da agertzen diren lehenetakoa (Larrañaga, 1994; Barreña, 1994, 1995; Ezeizabarrena, 1996; Ezeizabarrena eta Larrañaga, 1996; Zubiri, 1997; Elozegi, 1998; Almgren eta Barreña, 2001; eta abar).

– Aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken agerrera-hurrenkerari dago-kionez, aditz-aspektua (*-tu*, *-tzen*, *-ko*) eta subjektuarekiko pertsona-komuntadura adierazten duten adizkiak (*naiz/da*, *du/du*) lehenetarikoak dira agertzen; ondoren zeharkako osagarriarekiko pertsona-komuntadura adierazten duten adizkiak (*zait/zaio/dizut/diot*), osagarriarekiko pertsona-komuntadura adierazten dutenak (*du/dituz*), aditz-aldia adierazten dutenak (orainaldia/iragana), eta abar agertzen dira (Barreña, 1996; Ezeizabarrena, 1996, 1997, 2001, 2002, 2003; Ezeizabarrena eta Larrañaga, 1996; Almgren, 2000; Almgren eta Barreña, 2001; eta abar).

– Mendeko esaldiak eraikitzeke esaldiei eranstean zaizkien morfologia-markak (*-(e)la*, *-(e)lako*, *-(e)n...*) adizkiak erabiltzen hasi eta gero agertzen dira; hauen artean ere batzuk besteak baino goizago agertzen dira, eta horietakoak dira hemen arakatuko ditugunak (Barreña, 2000, 2001).

Ikerketa honetako helburua bikoitza da. Batetik, ekoizpen-mailan morfologiaren agerrera mailakatua dela baietsi nahi dugu, baina morfologiaren hurrenkera zein den ikusita. Bestetik, lehenago haur gutxiren jarraipen luzeetan aurkitutako morfologia-hurrenkera orain ume askoren datuetan berresten den arakatu nahi dugu: izen-sintagmei eranstean zaizkien marka morfologikoak lehenago agertzen direla aditz-sintagmei eranstean zaizkienak baino. Hipotesi hauen funtsa haurrek hiztegia bereganatzen hasten direnean erabiltzen duten izenen portzentaje handian datza, berau aditzena baino handiagoa da eta (Barreña eta beste, 2006). Ildo horretatik, izen-sintagmei eta aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken ostean, esaldiei eranstean zaizkien morfologia-marken agerrera gertatuko dela uste dugu.

2. Lan honetan deklinabideko NOR, NORK, NORI eta NOREN kasutzat joko dira; NON, NORA, NOREKIN eta gainerakoak, ostera, postposiziotzat.

Bestalde, uste dugu morfologiaren agerrera mailakatua hurrek darabilten hiztegiarekin edo masa lexikoarekin erlazionatuta dagoela. Hots, beharrezkoa izango dutela masa lexiko kritiko zehatza jabetuta izatea elementu morfologikoak ekoizten hasteko.

Ikerlan honetan datu-bilketa osatzeko jarraitutako metodologia aurkeztuko dugu lehen atalean. Ondoren, bigarren atalean, emaitzak erakutsiko ditugu, morfologiaren agerrerari buruzkoak, alegia. Datuok hiru azpiataletan antolatu ditugu: izen-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken agerrera, aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken agerrera, eta esaldiei eranstean zaizkien morfologia-marken agerrera, hain zuzen. Amaitzeko ondorioak jasotzeari ekingo diogu.

2. Metodologia

Lan honetan *Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda tresnaren euskararako egokitzapena* ikerketa-taldeak³ bildutako zenbait datu erabiliko ditugu, 16tik 30 hilabetera bitarteko 975 haurren datuak, alegia. Datu horiek gurasoek bete zuten galdetegi baten bidez jaso ziren, *Hitzak eta esaldiak* izenekoa, eta, oro har, adin horietako hurrek darabilten oinarrizko lexiko, gramatika eta sintaxiaren berri biltzen dute.

Ikerketa hau Estatu Batuetako ingelesaren inguruan eginiko *Communicative Development Inventories* (Fenson eta beste, 1993) izenekoaren egokitzapena da, helburu nagusia haurren hizkuntzaren garapena irudikatzea izanik.

Tresna hau munduko hainbat hizkuntzatara moldatu da, edo moldatzeko bidean da (ikus www.sci.sdsu.edu/cdi/). Dagoeneko, galdetegiaren egokitzapena, datu-bilketa eta lehen analisiak eginda daude hainbat hizkuntzatan, hala nola, Mexikoko gaztelanian (Jackson-Maldonado eta beste, 1993), hebraieran (Maital eta beste, 2000), Frantziako frantsesean (Kern, 2003), galizieran (Pérez Pereira eta García Soto, 2003), Zeelanda Berriko ingelesean (Reese eta Read, 2000) eta Espainiako gaztelanian (López Ornat eta beste, 2005). Moldatzeko bidean dauden artean, ostera, katalanarena dago, esaterako.

Hitzak eta esaldiak deituriko galdetegiak atal nagusi bi ditu. Lehenengo atalean haurrak darabiltzan hitzei buruz itauntzen zaie gurasoei. Guztira 646 hitz dira, 21 eremu semantikotan bereizita. Hiztegiaren gain, morfologiari buruzko 11 item ere badira lehen atalean. Bigarren atalean gramatikari eta sintaxiari buruzko galderak daude. Amaieran, haurri eta gurasoei buruzko datu orokorrak eskatzen dira (Arratibel eta beste, 2003).

Lan honetarako, hiztegiari buruzko 646 itenez gain, morfologiari buruzko beste 61 ere arakatuko ditugu, guztira 707, beraz. Horiez gain, sintaxiaren agerrera neurtzen duen galdera bati ere begiratuko diogu. Galdera horretan gurasoei euren

3. KGNZ taldea honako hauek osatzen dugu: Margareta Almgren, Nekane Arratibel, Julia Barnes, Andoni Barreña, Amaia Colina, Marijose Ezeizabarrena, Iñaki Garcia, Idoia Olano, Alazne Petuya eta Juanjo Zubiri. Beste une batzuetan, Itsaso Errarte, Lore Erriondo, Xabier Isasi, Eider Markaide eta Matilde Sainz ere izan dira taldean.

seme-alabak hitz biko ekoizpenak egiten hasita ote dauden itauntzen zaie, eta baietza bada erantzuna, halakoen adibideak eskatzen zaizkie.

Haur horien euskararen garapena era bitan ikusiko dugu. Batetik, datuak haurren adinaren arabera eskainiko ditugu. Bestetik, haurrek darabilten masa lexikoaren arabera. Bigarren bide horretatik jarraituta, 8 haur talde bereizi ditugu: 0-50, 51-100, 101-200, 201-300, 301-400, 401-500, 501-600 eta 601-707 hitz darabiltzatenean, galdetegian itauntzen direnetik 707 hitz eta morfologia-elementuei buruzko informazioa aztertuko dugu eta. Haurrek darabilten hiztegiaren banaketa hau Marchman-ek eta Bates-ek (1994) erabilitakoa da ingelesaren azterketarako.

3. Emaitzak

Atal honetan azterketan bildutako datuak eskainiko ditugu. Hasieran datu orokorrak lau tauletan jasoko ditugu, haurren adinaren arabera eta haurrek darabilten masa lexikoaren edo hiztegiaren arabera eratuta. Ondoren hainbat azpiataletan, arlo bakoitzeko morfologia-marken agerrera zehaztuko duten datuak erakutsiko ditugu.

Morfologia-marken erabileraren agerrera, adinaren arabera antolatuta, 1. eta 2. tauletan bilduko ditugu. Lehen taulan morfologia-marken erabilera haurren % 20k gauzatzen dueneko adinak jasoko ditugu; bigarren taulan, ostera, haurren % 50ek gauzatzen duenekoak (datu zehatzagoak geroago datozen irudietan daude). Ehuneko horien gauzatzea aukeratu dugu, nolabait, % 20k hasiera islatzen duelako eta % 50ek, aldiz, erdiek egiten dutena. Nabarmena da, edozelan ere, haur guztiak ez direla adin berberaz morfologia-markak ekoizten hasten, geroago datozen irudietan ikus daitekeen legez.

Hiztegiaren edo masa lexikoaren arabera antolatutako datuak 3. eta 4. tauletan jasoko ditugu. Taula horietan, aurrekoetan bezala, haurren % 20 eta % 50 morfologia-marken erabilera ekoizten hasten direnoko uneak adieraziko ditugu.

<i>Adina (hilabeteak)</i>	<i>Izen-sintagmei lotzen zaizkien morfologia- markak</i>	<i>Aditz-sintagmei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>	<i>Esaldiei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>
20	non, nora, nork		
21	noren		
22	nori	da	
23	zertaz, norekin	dut	
24	norentzat	naiz, -tzen (aspektua)	
25	nongo, nondik, -k plurala	du	
26		duzu, zait, -ko (aspektua)	
27	zerezkoa	zara, zaio	
28		gara, dira, zaizu, diot	
29		dizut	-elako (kausazkoak)

1. taula. Morfologiaren agerrera adinaren arabera: haurren % 20k erabilia.

<i>Adina (hilabeteak)</i>	<i>Izen-sintagmei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>	<i>Aditz-sintagmei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>	<i>Esaldiei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>
23	non		
24	nora, nori, noren		
25	nork		
26	zertaz, norekin	da, dut	
27	-k plurala	-tzen (aspektua)	
28	nongo, nondik, norentzat	-ko (aspektua), naiz, du, duzu	

2. taula. Morfologiaren agerrera adinaren arabera: haurren % 50ek erabilia.

<i>Hiztegia (hitz kopurua)</i>	<i>Izen-sintagmei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>	<i>Aditz-sintagmei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>	<i>Esaldiei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>
101-200	nork, nori, noren non, nora		
201-300	zertaz, norekin, norentzat, -k plurala	-tzen (aspektua)	
301-400	nongo, nondik	da, naiz, du, dut, -ko (aspektua)	
401-500	zerezkoa	zait, zaio, diot	
501-600	noraino	dut, ditut	-ela, -elako, -en (zehargaldera)
601-703	norantz	nintzen, zen, nuen, zuen, nion, nizun	

3. taula. Morfologiaren agerrera hiztegiaren arabera: haurren % 20k erabilia.

<i>Hiztegia (hitz kopurua)</i>	<i>Izen-sintagmei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>	<i>Aditz-sintagmei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>	<i>Esaldiei lotzen zaizkien morfologia-markak</i>
101-200	non, nora		
201-300	noren (% 49), nori (% 49)		
301-400	nork, norekin, -k plurala	-tzen (aspektua) (% 49), da, dut	
401-500	norentzat, zertaz	-ko (aspektua), naiz, duzu, du	
501-600	nondik, nongo	zara, gara, zait, zaizu, zaio, diot	
601-703	zerezkoa	dira, dizut, zen (% 47), ditut (% 47)	-elako

4. taula. Morfologiaren agerrera hiztegiaren arabera: haurren % 50ek erabilia⁴.

Adinaren arabera nabaria da izen-sintagmei eransten zaizkien morfologia-markak hiruzpalau hilabete goizago agertzen direla aditz-sintagmei eransten zaizkienak baino, % 20aren zein % 50aren gauzapena aukeraturata.

Izen-sintagmei eransten zaizkien morfologia-marken artean, lehenak NON eta NORA postposizio-markak eta NORK, NORI eta NOREN kasu-markak dira. Deklinabide-atzizki horien guztien erabilera hiru hilabeteren buruan gauzatzen dute aukera bietan (% 20an zein % 50ean). Nabarmena da NORK kasuaren atzizkiaren erabilerak duen toki ezberdina irizpide ezberdinen arabera.

Ondoren agertzen diren deklinabide-atzizkiak ZERTAZ, NOREKIN, NORENTZAT, NONGO, NONDIK eta ZEREZKO postposizio-markak dira. Gainerako postposizio-marken erabilerak, adinaren arabera, ez du gutxieneko haurren % 20k gauzatzen 30 hilabete izan aurretik. Horrela, esaterako, NORAINO eta NORANTZ postposizio-marken erabilera haurren % 16k eta % 4k lortu dute 30 hilabeterekin.

4. Batzuetan % 50era hurreratzen diren portzentajeak dauzkaten markak ere sartu ditugu.

Bestalde, plurala adierazteko euskaraz darabilgun marka, *-k* alegia, haurren % 30ek erabiltzen du 23 hilabeterekin. Aurreko hilabeteetan marka hau erabili duen haurren kopurua % 20 baino txikiagoa izan da. Nabarmena da, formaz NORK kasu-marka bezalakoa izan arren, beluago ekoizten dutela.

Aditz-sintagmei eransten zaizkien morfologia-markak 22 hilabeterekin hasten dira agertzen (% 20ren ekoizpenari begiratuta). Lehena *da* adizkia da, hain zuzen. Hurrengoak, 24 hilabeterekin, *naiz* adizkia eta *-tzen* aspektua dira.

Hala eta guztiz ere, morfologia-markaren baten jabeakuntza baiesteko beharrezkotzat jotzen da arlo bereko marka biren erabilera. Horrela, beharrezkoak izango lirateke, esaterako, subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten adizki iragangaitzen artean bi erabiltzea (*naiz* eta *da*, adibidez), subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten adizki iragankorren artean ere bi erabiltzea (*dut* eta *du*, adibidez), edo aspektu-marka bi ekoiztea (*ekartzen* eta *ekarri*, adibidez). Horrek aditz-sintagmei eransten zaien morfologiaren jabeakuntza 24 hilabetera atzeratzen du, marka batzuk goizago agertzen diren arren.

Goiztiarrenak, 24 hilabeterekin, aspektua adierazteko morfologia (amaitugabea adierazten duen *-tzen* marka / amaitua adierazten duen *-θ* marka⁵) eta subjektuarekiko komunztadura adierazten duten adizki iragangaitzak dira (*naiz/da*).

Ondoren honako morfologia-marka hauek agertzen dira: subjektuarekiko komunztadura adierazten duten adizki iragankorrak (*dut/du*), 25 hilabeterekin; etorkizuneko aspektua adierazten duen *-ko* marka, 26 hilabeterekin; eta, azkenik, zeharkako osagarriarekiko komunztadura adierazten duten adizki iragangaitzak (*zait/zaio*), 27 hilabeterekin. Gainerakoen erabilera ez da % 20ra heltzen 30 hilabeterekin. Horrela, iraganeko *nintzen*, *zen*, *nuen* eta *zuen* adizkien erabilera, esaterako, haurren % 10ek, % 9k, % 7k eta % 4k, hurrenez hurren, gauzatzen dute 30 hilabeterekin.

Gainera, aditz-sintagmei eransten zaizkien morfologia-marken agerrera-hurrenkera berbera daukagu, edo oso antzekoa behintzat, haurren % 50en ekoizpenari begiratzen badiogu. Kasu honetan ez dago erabilera-portzentaje horretara iristen den zeharkako osagarriarekiko komunztadura adierazten duen adizkirik, baina haurren herenak darabilta *zait*, *zaio* eta *diot* adizkiak 29 hilabeterekin.

Esaldiei eransten zaizkien morfologia-marken artean kausazkoren bat adierazteko erabiltzen ditugunak dira agertzen direnak: *-elako*, *-eta*, *bait*- edo besteren bat. Gainerako markak ez ditu haurren % 20k ere erabiltzen.

Hiztegi edo masa lexikoaren arabera ere nabarmena da izen-sintagmei eransten zaizkien morfologia-markak direla lehenak agertzen (3. eta 4. taulak). Horrela, 101 hitzeko hiztegia lortzen dutenean NON eta NORA postposizio-markak eta NOREN, NORI eta NORK kasu-markak erabiltzen hasten dira; 201 hitzeko hiztegiarekin ZERTAZ, NOREKIN eta NORENTZAT postposizio-markak eta plurala (*-k*); 301 hitzeko hiztegiarekin NONGO eta NOREKIN postposizio-markak; 401

5. Gurasoei galdetegian aspektu burutugabea adierazten duen *-tzen* markaren erabileraz galdetu zaie gramatika arloan, eta hiztegiak galdetzean aspektu burutua adierazten duten formen ekoizpena jasotzen da (*etortzen* eta *etorri*, hurrenez hurren, esaterako).

hitzeko hiztegiarekin ZEREZKO; 501 hitzeko hiztegiarekin NORAINO, eta azkenik, 601 hitzeko hiztegiarekin NORANTZ.

Antzeko hurrenkera ikus daiteke haurren % 50ek ekoitzian (4. taulan). Salbuespen bakarra, kasu honetan, NORK kasu-markaren erabilera da, zerbait atzeratu dena. Edozelan ere, 4. taulan NORK kasu-marka eta plurala adierazten dituen marka (biak *-k*) 301-400 hitzeko masa lexikoan ikus daitekeen arren, datu zehatzek erakusten dute kasu-markaren erabilera handiagoa dela (haurren % 70), pluralarena baino (haurren % 51). Badirudi, beraz, masa lexikoaren araberrako neurketa honetan ere kasu-marka dela goizago erabiltzen hasten dena, edo haur gehiagok darabiltena.

Aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken artean aspektu burutuga-bea adierazten duen *-tzen* marka da goiztiarrena (beti aspektu burutua adierazten duen markarekin batera), 201 hitzeko hiztegiarekin hasten baita agertzen (haurren % 20k ekoitzian). Ondoren, 301 hitzeko hiztegiarekin etorkizuneko aspektua islatzen duen *-ko* marka eta subjektuarekiko komunztadura adierazten duten adizki iragangaitzak (*naiz/da*) zein iragankorrak (*du/du*) azaltzen dira; 401 hitzeko hiztegiarekin zeharkako osagarriarekiko komunztadura erakusten duten adizki iragangaitzak (*zait/zaio*) zein iragankorrak (*dio*); 501 hitzeko hiztegiarekin osagarri zuzenarekiko komunztadura adierazten dutenak, baina bakarrik hirugarren gramatika-pertsonari dagozkionak (*du/dit*), eta, azkenik, 601 hitzeko hiztegiarekin iraganeko adizkiak (*nintzen/zen/nuen/zuen/nion/nizun*) (3. taula).

Esaldiei eranstean zaizkien morfologia-markak, guk neurtutakoak behintzat, denak agertzen dira 501 hitzeko hiztegiarekin: *-ela* konpletiboa, kausa adierazten dutenak (*-elako*, *-eta*, *bait*-) eta *-en* zehar-galdera. Edozelan ere, kausazkoak dira indar handiena dutenak, erabilera zabalena lortzen dute eta (ikus 4. taula).

Alabaina, hau guztia zehatzago ikus dezagun atalka erakutsiko ditugu datuok ondoko lerroetan.

3.1. Izen-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken agerrera

Orain arte arakatutako morfologia-marken garapen orokorra aztertu badugu ere, azpialt honetan eta hurrengoetan azterketa zehatzagoa egiten ahaleginduko gara.


Izen-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken artean kasu-markak, zenbait postposizio-marka eta pluralaren marka daude. Hizkuntzaren garapenean agertzen den lehenetariko marka izaten den artikulua (*-a*) ez arakatzea erabaki dugu, besteak beste, euskararen kasuan bere agerrera zehaztea zeregin berezia delako, eta ikerketa honetan datuak biltzeko erabili den metodoa, alegia, gurasoen informazioa, ez delako baliagarria arlo honetan. Euskaraz, izenak artikulua erantsita ekoizten dituzte haurrek hasiera-hasieratik, esaterako, *etxea*, *txakurra* edo *baloia*. Ikertzaileen ustez haurra ez da konturatzeko erantsi horren zereginaz harik eta izena artikulurik gabe eta beste determinatzaile edo adjektibo batez lagunduta erabili arte, hots, *etxe bat*, *txakur hori*, *baloia gorria* edo antzekoak ekoitzi arte (Idiazabal, 1995; Barreña, 1995; Zubiri, 1997). Zaila da, beraz, gurasoei halako informazio zehatza eskatzea era masiboan, eta horrexegatik ez zaie halakorik itaundu galdetegian.

NORK, NORI eta NOREN kasu-markak arakatu ditugu. Ezin izan diegu NOR kasu-markaren inguruan gurasoei galdetu, besteak beste, kasu horren marka $-\theta$ delako. Edozelan ere, ikerketa longitudinaletan ikusi den legez (Larrañaga, 1994; Barreña, 1995; Ezeizabarrena, 1996; Zubiri, 1997; Elozegi, 1998), gainerako kasuak agertzen direnean hau ere agertzen dela badakigu.



Arakaturako kasu-marken artean nabaria da (1. irudia) oso paretsu garatzen direla hirurak adinaren arabera, 20 (NOREN), 21 (NORK) edo 22 hilabeterekin (NORI), hain zuzen. Kasu-markak 30 hilabeterekin haur gehienek (% 70etik gora) darabiltzate.

Kasu-marka hauen eta hiztegiaren ekoizpenaren artean dagoen erlazioari begiratzen badiogu (2. irudia), nabarmena da, orobat, garapen paretsua. Horrez gain, garrantzitsua begitantzen zaigu aipatzea 101 hitzeko hiztegia behar dutela haurrek kasu-markak ekoizten hasteko, eta 501 hitzeko hiztegiarekin haur gehienek (% 90etik gora) erabiltzen dituztela. Azpimarragarria da 501 hitzeko hiztegia daukatenean, NORK kasu-markarekin gertatzen dena; izan ere, NORI eta NOREN kasu-markak haurren % 100ek erabiltzen dituen arren, NORK kasu-marka haurren % 90ek baino ez du erabiltzen. Gainera, 601 hitzeko hiztegia gaintzen dutenen artean ere datu berdinak errepikatzen dira kasu-marken ekoizpenaz.

NOREN kasu-markaren garapena NONGO postposizioarenarekin alderatuz gero, nabaria da adinaren zein masa lexikoaren arabera, goizago garatzen dela kasuarena (-ren) postposizioarena (-ko) baino (1. eta 2. irudia). Azpimarratzekoa begitantzen zaigu kontu hau, NONGO postposizioak, nolabait behintzat, sarritan tokia adierazten duelako, eta NOREN kasuak, ostera, erlazio abstraktuagoa. Halere, bigarrena da haurrek goizen garatzen dutena.





1. irudia. NORK, NORI, NOREN eta NONGO atzizkien garapena ehunekoetan adinaren arabera.





2. irudia. NORK, NORI, NOREN eta NONGO atzizkien garapena ehunekoetan masa lexikoaren arabera.

Postposizio-marken garapenari begiratu gero, nabaria da adinaren arabera NON eta NORA oso goiz garatzen direla (3. eta 4. irudiak), eta beluago datozela gainerakoak, baina era mailakatuan: goizago NONDIK, NONGO, NOREKIN, NORENTZAT eta ZERTAZ, eta geroago ZEREZKO, NORANTZ eta NORAINO.



Masa lexikoarekin erlazionatuz gero ere, NON eta NORA dira goiztiarrenak (5. eta 6. irudiak). Haurren % 80k 301 hitzeko hiztegiarekin NON eta NORA darabiltza, 401 hitzeko hiztegiarekin NOREKIN, 501 hitzeko hiztegiarekin NONGO, ZERTAZ eta NORENTZAT, eta 601 hitzeko hiztegiarekin ZEREZKO.





3. irudia. Zenbait tokiko postposizio-markaren garapena ehunekoetan adinaren arabera.



4. irudia. Zenbait postposizio-markaren garapena ehunekoetan adinaren arabera.




5. irudia. Zenbait tokiko postposizio-markaren garapena ehunekoetan masa lexikoaren arabera




6. irudia. Zenbait postposizio-markaren garapena ehunekoetan masa lexikoaren arabera

Plurala (haurren % 20 erabiltzen hastea, alegia) 23 hilabeterekin agertzen da, adinaren araberako datuetan (7. irudia), eta 201 hitzeko hiztegiarekin masa lexikoaren araberakoetan (8. irudia). Alabaina, forma berbera (-k) darabilten NORK kasuaren eta pluralaren garapenak alderatuz gero, nabarmena da ergati-boaren garapena zerbait goiztiarragoa dela. Gero, 30 hilabeterekin edo 501 hitzeko hiztegiarekin, antzeko haur kopuruek erabiltzen dute marka bera funtzio bietarako. Erkaketa honetan ere, lehenago NOREN eta NONGO markekin gertatu den legez, haurrek goizago garatzen dute abstraktutasuna adierazten duena, NORK alegia.



7. irudia. Ergatiboaren eta pluralaren -k marken garapenak ehunekoetan adinaren arabera.




8. irudia. Pluralaren eta ergatiboaren -k marken garapenak ehunekoetan masa lexikoaren arabera.

3.2. Aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken agerrera

Aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-markak izen-sintagmei eranstean zaizkienak baino beluago garatzen dituzte haurrek, lehenago ere ikusi dugun bezala. Adinaren arabera, aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-markak lau hilabete beluago, gutxi gorabehera, hasten dira ekoizten. Hiztegiari begiratuz gero, aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-markak ekoizten hasteko, izen-sintagmei eranstean zaizkienak ekoizten hasteko hiztegiaren bikoitza behar dute.

Aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken agerrera-hurrenkera zehaztean, nabaria da adinaren arabera aspektu burutugabea adierazten duen *-tzen* marka (9. irudia) eta subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten

adizki iragangaitzak (*naiz/da*) (11. irudia) goiztiarrenak direla, 24 hilabeterekin. Geroago agertzen dira subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten adizki iragankorrak (*dut/du*), 25 hilabeterekin (13. irudia); etorkizuneko aspektua (-*ko*), 26 hilabeterekin (9. irudia), eta zeharkako osagarriarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten adizki iragangaitzak (*zait/zai*o), 27 hilabeterekin (15. irudia).



9. irudia. Aditz-aspektuaren garapena ehunekoetan adinaren arabera.


Aditz-aspektua aztertzeko gurasoei eskatu zaien informazioa hau izan da: aspektu burutugabea (-*tzen*, *etortzen*...) eta etorkizunekoa (-*ko*, *etorriko*...) adierazten dituzten marken ekoizpenari buruzkoa. Jakin badakigu aspektu burutua (*etorri* bezalakoak) adierazten duen marka hutsa dela⁶, eta haurrek halakoak, formaz behintzat, aditzak ekoizten dituztenetik darabiltzatela. Aspektu burutuaren erabilera beste aspekturen baten erabilerarekin kontrastatuta baino ezin daiteke segurtatu, beraz. Ikerketa honi dagokionez, haurrek, aspektu burutugabea islatzeko erabiltzen den -*tzen* marka ekoizten dutenetik, aspektu burutua ere badarabiltzela esan behar dugu, hiztegia jasotzerakoan aspektu burutua daukaten formak darabiltzatzela badakigulako.

Bestalde, masa lexikoaren arabera antolatutako datuei begiratzen badiegu, goizen agertzen dena aspektu burutugabea adierazten duen -*tzen* marka da, 201 hitzeko hiztegia eskuratzen dutenean.



Ondoren, 301 hitzeko hiztegia erdiesten dutenean, etorkizuna adierazten duen -*ko* aspektu-marka hasten dira erabiltzen (10. irudia). Horrekin batera, subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten zenbait adizki iragangaitz, hala nola *naiz/da* pareta (12. irudia), eta subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten adizki iragankorrak ere, *dut/du* (14. irudia), erabiltzen hasten dira.

6. Kontua da, haurrak oraindik hitz solteak baino ez dituenen ekoizten, *etorri* eta *hartu* bezalako aditzak ere badarabiltzala. Gurasoei aspektu burutuaren erabilerari buruzko informazioa era masiboan eskatzea, beraz, oso zaila da, haurrak hasiera-hasieratik darabiltzan hitz solte horien artean itxura berbera duten hitzak baitaude.



Geroago, 401 hitzeko hiztegia bereganatzen dutenean, zeharkako osagarriarekiko komunztadura erakusten duen *zait/zaio/diot* hirukotea agertzen da (16. irudia). Behin 501 hitzeko hiztegia daukatenean, zeharkako osagarriarekiko komunztadura erakusten duen *dio/dizut* bikote kontrastatua ere ikus dezakegu (16. irudia), eta osagarri zuzenarekiko komunztadura adierazten duten *ditut/ditu* adizkiak, soilik hirugarren pertsonari dagozkionak (16. irudia). Azkenik, 601 hitzeko hiztegia lortutakoan, iraganeko adizkiak ere ikus ditzakegu, hala nola *nintzen/zen* eta *nuen/zuen* bikoteak (18. irudia)





10. irudia. Aditz-aspektuaren garapena ehunekoetan masa lexikoaren arabera.





11. irudia. Subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren garapena ehunekoetan adinaren arabera (adizki iragangaitzak).





12. irudia. Subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren garapena ehunekoetan adinaren arabera (adizki iragangaitzak).





13. irudia. Subjektuekiko eta osagarri zuzenarekiko pertsona-komuntaduraren garapena ehunekoetan adinaren arabera (hirugarren gramatika-pertsonena).





14. irudia. Subjektuekiko eta osagarri zuzenarekiko pertsona-komuntaduraren garapena ehunekoetan masa lexikoaren arabera (hirugarren gramatika-pertsonena).





15. irudia. Zeharkako osagarriarekiko pertsona-komuntaduraren garapena ehunekoetan adinaren arabera.



16. irudia. Zeharkako osagarriarekiko pertsona-komuntaduraren garapena ehunekoetan masa lexikoaren arabera.



17. irudia. Iraganeko adizkien garapena ehunekoetan adinaren arabera.



18. irudia. Iraganeko adizkien garapena ehunekoetan masa lexikoaren arabera.

Aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken agerrerari zehatzago begiratuz gero, nabaria da singularreko pertsonak adierazten dituzten adizkiak (*dut* eta *nuen*, esaterako), pluralekoak adierazten dituztenak (*ditut* eta *nituen*, adibidez) baino goizago agertzen direla. Era berean, nabarmena da singularrekoen artean lehen eta hirugarren pertsonari dagozkionak lehenetakoak direla. Horrela, esaterako, subjektuarekiko komunztadura adierazten duten adizki iragangaitzen artean *da* adizkia da lehen, 22 hilabeterekin, singularreko hirugarren pertsonari dagokiona, alegia. Ondoren datoz *naiz*, 24 hilabeterekin; *zara*, 27 hilabeterekin, eta *gara* eta *dira*, 28 hilabeterekin.

Masa lexikoari begiratuz gero, *da* 201 hitzeko hiztegiarekin agertzen da, *naiz* 301 hitzeko hiztegiarekin, *zara* eta *dira* 401 hitzeko hiztegiarekin, *gara* 501 hitzeko hiztegiarekin eta *zarete* 601 hitzeko hiztegiarekin. Gramatika-pertsonen arteko hurrenkera berbera ikusi izan da datu longitudinalekin egin diren ikerketetan (Barreña, 1995; Ezeizabarrena, 1996).


3.3. Esaldiei eranstean zaizkien morfologia-marken agerrera

Esaldiei eranstean zaizkien morfologia-marken artean hiru motatakoak baino ez ditugu arakatu: *-ela* konpletiboa, *-en* zehar-galdera eta kausazko hainbat (*-elako*, *bait*, *eta*, *zergatik*, *ze*), baina azken horiek batera zenbatuta.


Izen-sintagmei eta aditz-sintagmei eranstean zaizkien morfologia-marken ekoizpenarekin alderatuta, beranduen agertzen direnak dira esaldiei eranstean zaizkienak, nabarmen. Pentsatzekoa da hau gertatzen dela, besteak beste, marka hauek gehienetan adizkiei eranstean zaizkielako, hots, aditz-morfologia adierazten duten hitzei atxikitzen zaizkielako.

Adinari begiratzeko badiogu, neurtutakoaren barruan kausazkoen ekoizpena haurren % 27k egiten du 30 hilabeterekin (19. irudia). Konpletiboen eta zehar-galderen ekoizpena, ostera, haurren % 19k eta % 11k gauzatzen dute hurrenez hurren adin berberarekin.

Masa lexikoari begiratzeko badiogu, hiru motatakoak agertzen zaizkigu 501 hitzeko hiztegiarekin (20. irudia). Zehatzago begiratu, badirudi kausazkoak direla erabilienak, garapen-maila honetan ia haurren erdiak (% 46k) ekoizten baitu kausa adierazten duen markaren bat. Konpletiboa, ostera, haurren % 28k baino ez darabil, eta zehar-galdera % 29k. Hurrengo garapen-mailan, 601 hitzeko hiztegia lortu duten haurren, nabarmena da hiru motatako marken erabilera hazten dela, baina kausazkoen nagusitasuna ere agerian dago (20. irudia).



19. irudia. Menderagailuen garapena ehunekoetan adinaren arabera.



20. irudia. Menderagailuen garapena ehunekoetan masa lexikoaren arabera.

4. Ondorioak

Hiru dira bereziki azpimarratu nahi ditugun ondorioak. Lehenik eta behin, uste izan dugun legez, nabarmena da euskararen garapenean morfologia-marken artean gertatzen den erabilera mailakatua.

Gainera, erabilera mailakatu hau, zelanbait, zentzu anitzean gertatzen da. Orokorrean begiratuta, nabaria da izen-sintagmei eransten zaizkien morfologia-markak goizago hasten direla agertzen aditz-sintagmei eransten zaizkienak baino; eta bigarren horiek ere esaldiei eransten zaizkienak baino goizago agertzen hasten dira.

Baina mota bakoitzeko morfologia-markei begiratuta ere, nabarmena da garapen mailakatua. Esaterako, aditz-sintagmei eransten zaizkien morfologia-marken artean aditz-aspektua adierazten duten markak lehenetarikoak dira agertzen. Aditz-komuntadura erakusten dutenen artean ere nabaria da mailaketa: subjektuarekiko komuntadura da lehena, zeharkako osagarriarena dator ondoren, eta osagarri zuzenarena da azkena (alabaina, hau hirugarren pertsoneri dagokiena baino ez dugu baietsi). Geroago dator, esaterako, iraganeko adizkien agerrera. Oro har, hurrenkera bera, edo oso antzekoa, ikusi da adinaren zein masa lexikoaren arabera.

Izen-sintagmei eransten zaizkien marken artean ere garapen mailakatua ikusi dugu. NON eta NORA postposizio-markak izan dira lehenetakoak; jarraian kasu-markak agertu zaizkigu, eta ondoren gaineko postposizioak banan-banan. Nabarmena izan da ikustea marka bera (-k) darabilten NORK kasuak eta pluralak daukaten agerrera ezberdina: goizago agertzen da kasu-markaren erabilera.

Esaldiei eransten zaizkien morfologia-marken artean nolabaiteko garapen mailakatua ikus badaiteke ere, ez dugu ikusi garapena horren mailakatua denik. Batetik, oso marka gutxiren erabilera aztertu dugu, gainerakoan garapena beranduago gertatzen ei delako (Barreña, 1994, 2001). Bestetik, aztertutako datuetan bada lorratzik esateko kausazkoak konpletiboak eta zehar-galderak baino zerbait goizago agertzen direla.

Bigarrenik, morfologia-marka ezberdinen agerrerak lexikoaren garapenarekin zerikusi handia duela ere azpimarratu behar dugu. Hipotesi hau aurretik aldarrikatu dugu, ikerketaren hasieran. Ildo honetatik, nabarmena begitantzen zaigu lexikoaren eta morfologiaren garapenen artean dagoen erlazioa. Haurren hiztegian izenen portzentajea aditzena baino handiagoa denean, izen-sintagmei erantsitako morfologia-markak agertzen hasten dira (301 hitzeko hiztegia izan arte). Ostera, aditzen portzentajea izenenari gailentzen zaionean, aditzei erantsitako morfologia-ezaugarriak agertzen hasten dira (301 hitzeko hiztegia gainditzen dutenetik) (Barreña eta beste, 2006).

Gainera, haurren euskararen garapena irudikatu ahal izateko badirudi prediktiboagoa dela bere masa lexikoa zein den jakitea, adina jakitea baino. Esan nahi duguna hauxe da: orain arteko datuak ikusita, haurrak zenbateko hiztegia duen jakinda, bere euskararen garapena fidagarritasun handiz isla daitekeela. Haurren adina, ostera, ez da hain fidagarria hizkuntzaren garapena nolakoa den

zehazteko. Beste era batera esanda: haurraren hiztegia zein den jakinda, zehatzago jakin dezakegu zein elementu morfologiko darabiltzan. Taulei begiratzea baino ez dago, masa lexikoaren arabera antolatutakoetan (3. eta 4. taulak) marka gehiago agertzen direla ikusteko.

Hirugarrenik, lehenago ikerketa longitudinaletan haur gutxirekin ikusitakoa, orain ume askoren datuekin baietsi egin da, oro har bederen. Baiespen hau ez doakio orokortasunari bakarrik, datu zehatzei ere bai. Hemen ikusitako morfologiaren agerrera-hurrenkera, oro har, aurretik haur gutxiren datuetan oinarritutako ikerketa longitudinaletan ikusitako berbera da.

Bibliografia

- Almgren, M. (2000): *La adquisición del tiempo y aspecto verbal en euskara y castellano*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Doktorego Tesia.
- Almgren, M. eta Barreña, A. (2001): "Bilingual acquisition and separation of linguistic codes: ergativity in Basque versus accusativity in Spanish", in K. E. Nelson; A. Aksu-Koc eta C. E. Johnson (arg.), *Children's Language, Volume 11: Interactional Contribution to Language Development*, Lawrence Erlbaum Associates, Mahwah, New Jersey, 27-48.
- Arratibel, N.; Barreña, A.; Garcia, I. eta Markaide, E. (2003): "Komunikazio garapena neurtzeko zerrenda tresnari buruzko zenbait jakingarri", *Jakingarriak*, **49-50**, 56-61.
- Barreña, A. (1994): "Deklinabidearen jabe-kuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan", *Euskera*, **39-2** (2. aldia), 505-537.
- , (1994): "Haur euskaldun elebakar baten mendeko perpausen jabe-kuntza-garapena", *Tantak Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntz Aldizkaria*, **12**, 45-73.
- , (1995): *Gramatikaren jabe-kuntza-garapena eta haur euskaldunak*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- , (1996): "Aditz-aldiaren erabilera goiztiarra haur euskaldun elebakar batengan", *Hizpide*, **35**, 25-38.
- , (2000): "Estructuras subordinadas en niños monolingües y bilingües vasco-españoles", in R. P. Leow eta C. Sanz (arg.), *Spanish Applied Linguistics at the Turn of the Millennium*, Cascadilla Press, Somerville, 157-173.
- , (2001): "Grammar differentiation in early bilingual acquisition: subordination structures in Spanish and Basque", in M. Almgren; A. Barreña; M. J. Ezeizabarrena; I. Idiazabal eta B. McWhinney (arg.), *Research on child language acquisition*, Cascadilla Press, Somerville, 78-94.
- Barreña, A.; García, I.; Almgren, M. eta Arratibel, N. (2006): "Lexikoaren eta gramatikaren arteko erlazioaz", *Gogoia*, **VI-1**, 55-76.
- Barreña, A.; Ezeizabarrena, M. J. eta García, I. (agertzeko): "Influence of the linguistic environment on the development of the lexicon and grammar of Basque bilingual children", in C. Perez-Vidal, M. Juan-Garau eta A. Bel. (arg.), *A Portrait of the Young in the New Multilingual Spain*, Multilingual Matters, Clevedon, UK.
- Bassano, D. (2000): "Early development of nouns and verbs in French: Exploring the interface between lexicon and grammar", *Journal of Child Language*, **27**, 521-559.

- Bates, E.; Marchman, V.; Thal, D.; Genson, L.; Dale, P.; Reznick, J. S.; Reilly, J. eta Hartung, J. (1994): "Developmental and stilistic variation in the composition of early vocabulary", *Journal Child Language*, **21**, 85-123.
- Casselli, M. C.; Casadio, P. eta Bates, E. (1999): "A comparison of the transition from first words to grammar in English and Italian", *Journal of Child Language*, **26**, 69-111.
- Devescovi, A.; Caselli, M. C.; Marchione, D.; Pasqualetti, P.; Reilly, J. eta Bates, E. (2005): "A crosslinguistic study of the relationship between grammar and lexical development", *Journal of Child Language*, **32**, 759-786.
- Elosegi, K. (1998): *Kasu eta preposizioen jabe-kuntza-garapena haur elebidun batengan*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Ezeizabarrena, M. J. (1996): *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- , (1997): "Morfemas de concordancia con el sujeto y con los objetos en el castellano infantil", in A. T. Pérez-Leroux eta W. R. Glass (arg.), *Contemporary Perspectives on the Acquisition of Spanish*, Cascadilla Press, Somerville, 21-36.
- , (2001): "Non-finite root sentences: a language specific or a child language specific option?", *Working Papers in Multilingualism*, **26** 1. lib. (University Hamburg), 54-72.
- , (2002): "Root infinitives in two pro-drop languages", in A.T. Pérez-Leroux eta J. Liceras (arg.), *The Acquisition of Spanish Morphosyntax: the L1 / L2 connection*, Kluwer, Dordrecht, 33-64.
- , (2003): "Null subjects and optional infinitives in Basque", in N. Müller (arg.), *(In)vulnerable Domains in Multilingualism*, Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 83-106.
- Ezeizabarrena, M. J. eta Larrañaga, P. (1996): "Ergativity in Basque: a problem for language acquisition?", *Linguistics*, **34**, 955-991.
- Fenson, L.; Dale, P. S.; Reznick, J. S.; Thal, D.; Bates, E.; Hartung, J. P.; Pethick, S. eta Reilly, J. S. (1993): *Communicative Development Inventories. User's Guide and Technical Manual*, Singular Publishing Group INC, San Diego.
- Idiazabal, I. (1995): "First stages in the acquisition of noun phrase determiners by a Basque-Spanish bilingual child", in C. Silva-Corvalan (arg.), *Spanish in Bilingual Context*, Georgetown University Press, Washington, 260-278.
- Jackson-Maldonado, D.; Thal, D.; Marchman, V.; Bates, E. eta Gutierrez-Clellen, V. (1993): "Early lexical development in Spanish-speaking infants and toddlers", *Journal of Child Language*, **20**, 523-549.
- Kern, S. (2003): "Le compte-rendu parental au service de l'évaluation de la production lexicale des enfants français entre 16 et 30 mois", *Cahiers de l'U.N.A.D.R.E.O.*, **85**, 48-61.
- Larrañaga, P. (1994): "La evolución del caso en euskera y castellano", in J. M. Meisel (arg.), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Editorial Iberoamericana, Madrid.
- López Ornat, S.; Gallego, C.; Gallo, P.; Karousou, A.; Mariscal, S. eta Martínez, M. (2005): *Inventario de Desarrollo Comunicativo MacArthur. Manual de la adaptación española*, TEA Ediciones, Madrid.
- Maital, S. L.; Dromi, E.; Sagi, A. eta Bornstein, M. H. (2000): "The Hebrew Communicative Development Inventory: language specific properties and cross-linguistic generalizations", *Journal of Child Language*, **27**, 43-67.
- Marchman, V. eta Bates, E. (1994): "Continuity in lexical and morphological development: a test of the critical mass hypothesis", *Journal of Child Language* **21**, 339-366.
- Pérez-Pereira, M. eta García-Soto, X. R. (2003): "El diagnóstico del desarrollo comunicativo en la primera infancia: adaptación de las escalas MacArthur al gallego", *Psicothema*, **15**, 352-361.

- Reese, E. eta Read, S. (2000): "Predictive validity of the New Zeland MacArthur Communicative Development Inventory: Words and Sentences", *Journal of Child Language*, **27**, 255-266.
- Serrat, E.; Sanz-Torrent, M. eta Bel, A. (2004): "Aprendizaje léxico y desarrollo de la gramática", *Anuario de Psicología*, **35**, 221-234.
- Zubiri, J. J. (1997): *Izen Sintagmaren determinazioa eta kasuen jabeakuntza eta garapena hiru urte arte. Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren jarraipena*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Doktorego Tesia.

